

JANTOKIKO ARAUTEGIA

A. Langileak errespetuz tratatuko ditugu, hasieran eta bukaeran agurtu, behar duguna oihukatu gabe eskatuko diegu eta gure txanda ailegatu arte lasai espetuko dugu.

Langileak ez errespetatzekotan hurrekin hitzeginen dute eta bi aldiz jarraian gertatuz gero, ez zaie atendituko behar bezala tratatu arte.

B. Eskuak garbitu ondoren, jantokian lasai sartuko gara.

Sartu aurretik hurrei harrera eginen zaie eta behin lasaitu direnean eta arauak oroitarazita, taldeka sartuko dira jantokian.

C. Janaria, ura eta mahai tresnak ongi erabiliko ditugu

Janaria botatzekotan bildu eta garbitu beharko dute zikindutakoa.

Tresnak behar bezala ez erabiltzekotan, une batez kenduko zaizkie, beranduago jatez bukatuko dute eta bere mahaia garbitzen gelditu beharko dute.

D. Behar duguna errespetuz eskatuko dugu eskua altxatuta, gure txanda lasai espetuz eta behin bakarrik eskatuta.

Oroitaraziko zaie gauzak nola eskatzen diren eta hala egin arte ez zaie eskatzen dutena emanen.

Oihuka aritzen denak bakarrik bazkalduko du.

E. Bazkaldu ondoren biltzen lagunduko dugu gure txanda denean.

Bildu arte ez dira atsedenaldira joanen.

F. Bazkaldu ondoren ez gara geletan sartuko.

Jantokiak irauten den denboran gelak itxiak edukiko ditugu ez ordea komunak.

